

» TELEGRAMA

Makulu Ken taldeak *Kalè Kalè* disko berria aurkezteko kontzertua eskainiko du otsailaren 3an Donostiako Dokan, afrobeat musika egiten duen taldea ezagutze-ko aukera paregabea **STOP Kabaret Gaüa** antolatu dute Muskildin otsailaren 4an: Xendarineko Ahizpek, Asisko Urmenetak eta Peio Etxekoparrek, eta Bordaxar, Luro, Larrandaburu eta Urrutyk alaituko dute iluntzea Etxepare institutuaren alde **STOP** Azken egunak Donostian **Modernitate bakan bat** ikusteko: San Telmo museoa azarotik dagoen erakusketa otsailaren 5ean erretiratuko dute **STOP**

» DISKOA

Gurean bildu, kaka zabaldu



Iker Barandiaran



Eszeptizismoaren poltronatik

PECOZZA UNITED

Autoekoizpena

Muguruza, Burgaña eta Bidaurre irundarrek osatzen dute Pecoza United taldea.



Talde honen izena lehenengoz entzun nuenean, Arrasaten luzaroan hain presente egon den eta Euskal Herriko beste eskualde batzuetan zabaldutako Oi! eszenako beste proiektu bat irudikatu nuen. Gerora kantak entzuterakoan ohartu nintzen Irun aldeko talde honek oso gutxi duela tradizioetik eta, aldiz, askoz gehiago ohiko kontzeptuak hankaz gora jarri eta gudan kritika biderkatze-rik. Euskal Herrian badira antzeko helburua duten talde gutxi batzuk, gutxiegi tamalez –ezagunen artean, Lendakaris Muertos eta Ciclos Iturgaiz-. Deserosoak izan ohi dira entzule batzuentzat, suntsitzaileak beste batzuentzat, eta gainontzekoentzat eraikitzaileak –eraikitzeke lehenengo suntsitu-, irribarrea eragiten dutenak.

Hiru bat urte dela sortu zuten taldea Beñat Muguruzak, Xabi Burgaña eta Lander Bidaurrek, beste talde batzuen kontzertuak ikusi, beraiek ere zer esan bazutela pentsatu eta agertoki batera igotzeko gogoak eraginda. Eta beraientzat garrantzitsuena mezua –esan nahi zutena– eta bat-batekotasuna zirenez, punka aukeratu zuten buelta gehiago eman gabe.

Irundarren kantetan ez dugu aurkituko denon ahotan aspaldian dabilen Donald Trump, esaterako. Horren ordez, askoz “etxeagoak”

diren beste asko dituzte jomugan. Eta horrek, jakina, bestelako eragina dauka entzuleen artean, jarraitzaileak eta kontrakoak pilatuz. Agian onartuko ez badute ere, gurtu ez, baina odolean daramaten 80ko hamarkadako punkaren eragin handia dute –La Polla, Cicatriz, Dead Kennedys edo hardcoretik hurbilago dauden erreferentziak-. Beraiek punk sinplea egiten dutela badiote ere, punk azkarra eta iluna da nagusi, askotan hitzen itzalean gelditzen dena.

2015ean kaleratutako *Hononimoan* “Borroka da autobide bakarra”, “Urrujo de puta”, “Euskal Nobel bakarra, Erramon eta Kaxal”, “Barkatu gaur ez banaiz aski independentista izan”, “3 Eusko Gudari errezatuko ditut” eta “Denok gara Coca-Cola”-ren pareko leloak abestu bazituzten, lan berrian ere gaurkotasanari tentuz eta zorrotasunez erreparatu diote. Hala, “Egin irribarre, irabaztera goaz ETA”-tik hasita, “ETB antenatik at” ateratzeko ahaleginetan dabilta Julian Iantzi (e)gurtuz, Africa Baeta-ISIS harremana haizatuz eta “Iparaldearen oreina” jetziz. Aldiz, Olano eta Itxasori errefuxiatuak ez errefusatzeko eskatu arren, ziur daude “igandean DVk xaboi organikoa oparituko” duela. Horiez guztiez gain, antologikoa da Durangoko Azoka eta *postureoa* mintzagai Zentro Palentinoan omendu izana. Eta guztientzat sobera dutenez, ikasleak (*Bologna ez da plana*), Iparraldeko folk salgarria (*Larrepetit*) eta “tik matxistak” ere jomuga izan dituzte. ■